

euskararen BERRIPAPERA

Frantzia euskararen ofizialtasuna onartzeko bidean

Datorren urtearen hasieran, *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* sinatzeko borondatea agertu du Frantziak. Agiri hau Europako Kontseiluak sustatutako testua da. Europako Kontseilua elkarlanerako sortutako erakundea da eta bere barnean Europako eskualde eta nazioen arazok eztabaidatzen dira eta euren arteko lankidetzaz garatzen da. Gaur egun 40 estatuz osaturik, momentuz 18k sinatu dute *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*. Honako hauek dira: Austria, Alemania, Danimarka, Errumania, Eslovenia, Espainia, Finlandia, Holanda, Hungaria, Kroazia, Liechtenstein, Luxemburg, Malta, Mazedoniako Errepublikak, Norvegia, Suitza, Ukraina eta Zipre.

Frantziako gobernuaren arabera, *Europako Gutuna* sinatzeko erabakia "nazio osoaren kultur ondasunaren aberastasuna eta aniztasuna nabarmentzean datza". Neurri hau, lehen ministroak, Lionel Jospinek, Guy Carcassone lege-adiuari emandako enkarguaren ondoren dator; alegia, azter zezala ea *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* eta Frantziako Konstituzioa bateragarriak ziren. Izan ere, Konstituzioak garbi dio bere

bigarren atalean frantsesa dela Errepublikako hizkuntza.

Salbuespenak

Guy Carcassonek egindako txostenaren arabera, Administrazioan eta Justizia arloan izan ezik, zilegi da euskara eta beste hizkuntzak hezkuntzan, komunikabideetan,

enpresa munduan edo banketxeetan erabiltzea. Lege-gizonak zuhertasuna eskatu du erabakia hartze-



ko orduan, berak dioenez *Eurokartako* 98 puntuak ez baitira Konstituzioarekin bateragarriak, baina bai 50

bat; 35 puntu onartuta, Frantziak sinatu ahal izango luke *Europako Gutuna*.

Erramun Baxok: Euskal Kultur Erakundeko (EKE) lehendakaria

"Argi da urrunago joan behar dela"

Frantziako gobernuak egindako iragarpena begi onez ikusten du eta *Gutuna* lehenbailehen sinatzekoa dela adierazi du Erramun Baxokek, EKEko lehendakari eta euskararen legeztapenean lanean ari denak. Alabaina *Eurokarta* testu luzea dela oroitarazi du eta estatuek artikuluen artean hautaketa bat egiteko aukera dutela azpimarratu du. "Gobernuak sinatuko du *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* -dio Baxokek- eta hori urrats handia da. Hala ere, Carcassonek bemol batzuk ezarri ditu. Ikusi egin beharko da 98 puntuetatik Frantziak zeintzuk onartzen dituen".

Bestalde, *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren* gaia "Poignant" txostenaren puntu bakar bat besterik ez da. Baxoken ustez, "ikusi-

ko da ea zein erantzun ematen dien bertze arloei: hots, irakaskuntzari, komunikabideei eta kultur gintzari. Argi da Frantziak urrunago joan beharko lukeela, hizkuntz legearen beharra baitugu. Poignantek dio konstituzio aldaketa behar litzatekeela, bi hizkuntzen arteko parekotasuna lortzeko; eta hori oso zaila izan da", nabarmendu du. Administrazioaren atalari dagozkion artikulua izenpea litzateke interesgarriena "gisa horretan, Administrazioan euskararen erabilpena sartzeko aukera litzateke", dio Erramun Baxokek.



SUMARIOA

- 1 Frantzia euskararen ofizialtasuna onartzeko bidean
- 2 Laburrak
Aingeru Epaltza
Agenda
- 3 Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarientzako ikastaroak
EGA eta hizkuntz eskakizunak
Kirola euskaraz Deba Bailaran
Topagunearen Kultur Errota
- 4 Euskararen Kontseilua
Lehen begiratuan

LABURRAK**Au pair euskaldunak
zerbitzua**

Abian jarri da Uribe-Kosta eskualdean "au pair euskaldunak" izeneko ekimena. Uribe-Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzu Teknikoak bultzatutako eskaintza honen asmoa eskualdeko gurasoen esku "au pair" euskaldunen zerrenda ipintzea da. Zerrenda honetan eskualdeko hainbat neska-mutilen izen eta telefonoak ageri dira. Egintza honek aparteko harrera izan du gurasoen artean. Uribe-Kosta Mankomunitatetik ezezik, Getxotik, Leioatik eta Mungiatik ere dei anitz jaso dituzte. Zerbitzu honen bidez euskararen erabilera bermatzen da, gurasoak etxean ez egon arren. Haur hauek gehienak D eta B ereduetan matrikulatuta daude.

**Obabakoak
eleberriaren 10 urte**

Dagoeneko 10 urte bete dira Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren lehen edizioa argitaratu zenetik. Ordutik hona Atxagaren lana jira eta bira dabil, euskaraz idatzitako liburu batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena lortuz. *Obabakoak* eleberriaren 40.000 ale saldu dira dagoeneko, euskaraz 12 argitalpen egin dira, eta bere orriak beste 19 hizkuntzatarara ere itzuli dira. Eleberriaren azterketa literarioarako beste bi liburu idatzi dira: Ináki Aldekoaren *Antzarra eta ispilua*, eta Mari Jose Olaziregiren *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Sari ugari ere jaso ditu *Obabakoak*, besteak beste, Espainiako Literatur Saria, Kritikaren Saria, Euskadi Saria, eta Pariseko Millepages Saria.

Ustekabeko aurkikuntza


Bi historialarik euskaraz idatzitako XVIII. mendeko dokumentuak aurkitu dituzte Hondarribiko Udala Artxibategia arakatzen ari zirela. Ustekabea topatu zituzten, beren ikerketa-lanetarako material bila zebiltzala.

Aingeru Epaltza

Sorginkerien liburua izenburua darama Aingeru Epaltzak umeei bereziki zuzenduta egin duen lehen lanak. "Fantasia eta abenturazko istorioa da hau, beti ere sorginen mundu majiko eta liluragarri horren barruan", adierazi zuen idazle iruindarrak liburuaren aurkezpen-ekitaldian.

Zazpi eta hamaika urte bitarteko haurrentzat da testua eta bertan hamar urteko bi neskatilen abentura kontatzen da, hiritik baserri batera doazela ustekabez betetako oporraldiari hasiera ematen dietelarik.

Abenturaren narrazioari laguntzeko, liburuak marrazki ugari ditu, Asisko Urmeneta komikigile eta ilustratzaile ezagunak egindakoak.



Orain arte Aingeru Epaltzak jaso duen saririk garrantzitsuenak, iaz lortutako Euskadi Eleberri Saria izan da, aurreko urtean argitaratu zuten *Tigre ehizan* narrazioari esker.

AGENDA**Mosaic nazioarteko jardunaldiak**

Azaroaren 12tik 14ra arte Gales-eko Aberystwyth herrian *Mosaic* izeneko nazioarteko jardunaldiak izango dira. Topaketa hauen helburua eremu urriko hizkuntzekin, batez ere, ari diren profesionalen (argitaratzaile, itzultzaile eta teknikarien) arteko lankidetzara eta esperientzien trukea sustatzea da. Egitarauaren berri eta matrikulazioari buruz argibiderik nahi duenak, Galesko Unibertsitateara jo dezake. Telefonoa: 44 1970 62 25 33. Webgunea: merc@aber.ac.uk. Posta elektronikoa: www.aber.ac.uk/~merwww/mosaic/

Euskal Informatikarien Topaketak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatuta, hilaren 20an Informatikari euskaldunen II. Topaketak izango dira Donostiako Miramar jauregian. Euskara eta Internet da topaketa hauen hizpide nagusia. Horrez gain, euskarazko software eta informatika-katalogoen erakusketa egingo da. Izena azaroaren 13a baino lehen eman behar da, UEUko Bilboko bulegora deituta, 94 421 71 45 telefonora.

Beasaingo Udaleko idazlehiaketa

Ume, gaztetxo eta gazteen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko lehiaketa. Gaia librea izango da. Idazlanak, prosak, edozein generotan euskaraz idatzia, originala eta argitaratu gabea izan behar du. Olerki-saria ere bada. Sariak 35.000 ptatik 3.000 ptara izango dira. Informazio gehiago Beasaingo Udaleko Euskara Batzordean.

Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?

Getxon, azaroaren 16tik 27ra bitartean.

Durangoan, azaroaren 29tik abenduaren 13ra bitartean.

Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarientzako ikastaroak

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak, Eskoriatzako Irakasle Eskolak, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB), eta Ikastolen Elkarteak antolatuta, bigarren urtez jarraian martxan daude dagoeneko Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarientzako ikastaroak. Aipatutako ikastaroak bi mailatan ari dira garatzen, oinarrizkoa eta sakontze-koa. Oinarrizko mailan 68 ikastetxe daude; sakontzekoan, berriz, 240. Hizkuntza Normalkuntzako Programak ikastetxeetan Hizkuntz Normalkuntza Proiektuak egin eta gauzatzeko helburua du.



EGA eta hizkuntz eskakizunen arteko baliokidetasunak

EGA eta beste ziurtagirien arteko baliokidetasunak ezarri ditu Eusko Jaurlearitzak, aurreko xedapen guztiak baliogabetuz. Erabaki hau 1998ko urriaren 6ko 263 Dekretuaren bidez hartu da (EHAA, 1998ko urriaren 23ko alea). Dekretu horretan erabakitakoaren arabera Irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizun-

naren eta Administrazioiko 3. hizkuntza eskakizunaren baliokide izango dira EGA eta haren baliokideak. Bestalde, irakasle-en 1. hizkuntza eskakizunaren baliokide, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialaren 4. mailari dagokion ziurtagiria izango da.

Fitxa berriak *Kirola* euskaraz programan

Euskararen normalizazioa helburu dutela, Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek sei urte daromatxate kirola euskaraz egin ahal izateko euskarazko kirol materiala sortzen eta era askotako kirol ikastaroak antolatzen. Oraingo honetan, igeriketa, judo eta karateko fitxa didaktikoak argitaratu dituzte. Hiru fitxa horiek kontuan hartuz gero, dagoeneko zortzi dira *Kirola euskaraz* programan landu dituzten kirolak, esandakoei atletismoa, eskubaloia, errugbia, futbola eta saskibaloia gehitu behar baitzaizkie. Euren jomuga kirolen hastapenerako gida bat eskaintzea da. Bertan, erreferentzia teoriko laburrak eta hainbat saio-eredu eta joku mordo eskaintzen dira Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek atera dituzten fitxak baliogarriak izan daitezke kirolean ari diren hezitzaileentzat. Izan ere, fitxetan zehatz-mehatz jarraitzeko moduko hastapenerako saioak eta ohiko entrenamenduetan erabiltzeko moduko proposamenak dituzte.

Kultur Errota egitasmoa Topagunearen eskutik



- 1- Azaroak 6, Durangon, Joseba Tapia eta Iñaki Labaka.
- 2- Azaroak 7, Lasarte-Orian, Mikel Urdangarin.
- 3- Azaroak 8, Aretxabaletan, Mixel Ducau eta Caroline Philips, eta Oier Sarasua eta Txurda.
- 4- Azaroak 13, Arrasaten, Porrotx pailazoa eta Iñaki Labaka.
- 5- Azaroak 14, Elgoibarren, Andoni Egaña eta Jon Sarasua, eta Tehenta taldea.
- 6- Azaroak 15, Eibarren, Joseba Tapia eta Bergara Blues Band.
- 7- Azaroak 20, Deban, Joseba Tapia eta Kattalin Habans.
- 8- Azaroak 21, Gasteizen, Mixel Ducau eta Caroline Philips, eta Lasarteko Folk Banda
- 9- Azaroak 22, Oñatin, Urtzi Urrutikoetxea eta Kattalin Habans.
- 10- Azaroak 27, Bilbon, Porrotx pailazoa, eta Iñaki Labaka.
- 11- Azaroak 28, Durangon, Mixel Ducau eta Caroline Philips, eta Petti.
- 12- Azaroak 29, Lasarte-Orian, Kattalin Habans.
- 13- Abenduak 4, Aretxabaletan, Joseba Tapia eta Lasarteko Folk Banda.
- 14- Abenduak 5, Arrasaten, Andoni Egaña eta Jon Sarasua, eta Tehenta taldea.
- 15- Abenduak 6, Elgoibarren, Porrotx pailazoa, eta Iñaki Labaka.
- 16- Abenduak 11, Eibarren, Mixel Ducau eta Caroline Philips, eta Petti.
- 17- Abenduak 12, Deban, Porrotx pailazoa, eta Iñaki Labaka.
- 18- Abenduak 13, Gasteizen, Kattalin Habans eta Urtzi Urrutikoetxea.
- 19- Abenduak 18, Oñatin, Andoni Egaña eta Jon Sarasua, eta Tehenta taldea.
- 20- Abenduak 19, Bilbon, Joseba Tapia, Lasarteko Folk Banda, eta Tehenta taldea.
- 21- Abenduak 20, Durangon, Porrotx pailazoa eta Iñaki Labaka.
- 22- Abenduak 27, Lasarte-Orian, Bergara Blues Band eta Lasarteko Folk Banda.

Abian da Kontseiluaren euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpaina

Duela 20 urte euskal gizarteak erabili zuen lelo beraren inguruan, "Bai euskarari" hain zuzen, garatuko du sentsibilizazio-kanpaina Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. *Kontseiluak* landu duen XXI. Menderako Akordioaren ondorio da kanpaina. Dokumentu horren bidez, euskararen alde dauden talde eta erakundeek gizarteko sektore guztietako indarrak bildu nahi dituzte euskara garai berrietara egokitzeko.

Euskararen aldeko talde eta erakundeek, mende berria euskararen etorkizuna bermatuko duen sasoi izatea nahi dute, eta helburu nagusia euskarak irabazia duen prestigioa eta aldeotasun soziala areagotzea da. Sentsibilizazio-lanari hasiera emateko dagoeneko abian da "Bai euskarari" kanpaina, Euskal Herri osora zabaltzen ari dena. Bestalde informazio-asteak antolatu dira, euskalgintzako partaideei eta tokian tokiko eragile sozialei XXI. Mendeko Akordioa zertan

den azaltzeko eta laguntza eskatzera. Horrezaz gain hitzaldiak, bisitak, bilerak eta jai-giroko ekintzak ere badira herrietan. Oraingo "Bai euskarari" kanpaina, duela 20 urte bezala, jai erraldoi batekin bukatuko da.



Eusko Ikaskuntzaren euskal astekaria Interneten

Eusko *news & Media* du argitalpen elektronikoa hau. Izena Eusko Ikaskuntzaren Interneteko astekariak. www.eusko-news.com/enevs/Indice.html helbidean topa daiteke kultur eta zientzietarako egoizpenaz arduratzen den

batetik zientziari, kulturari eta historiari buruzko mahainguruak antolatuko ditu Interneten bidez entzuteko; beste aldetik, hilean behin, ale monografikoa aterako du.

Lehen begiratuan

Euskal idazleak eta *Euskal haur eta gazte literaturaren irudigileak* izeneko katalogoak kaleratu ditu Euskal Editoreen Elkarteak. Euskal idazle zenbaiten berri ematen du lehenak, eta euskal irudigileen eta hauen lanen ikuspegia bigarrenak. Informazioa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ageri da.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:.....
.....
.....
Helbidea:
.....
Herria:.....
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

